

HARTZAILEAK: DBH 1-2 mailak

DENBORA: 45 min.

HELBURUAK:

- Bakoitzak egunean sortzen dugun hondakin kopuruaz eta horren ondorioez gogoeta egitea.
- Hondakinen ibilbidea ezagutzea.
- Erabiltzen ditugun produktu guztiak egiteko lehengaiak naturatik hartzen ditugula ohartzea eta horren ondorioez jabetzea.
- Hondakinak gutxitzearen garrantziaz sentsibilizatzea.
- Hondakinei tratamendu egokia emateko, hauen sailkatze egokia egitearen garrantziaz sentsibilizatzea.

EDUKIAK:

- Sortzen dugun zabor kopurua, kontsumoa lurralde azpi-garatueta eta garatueta, zaborren tratamendua, 3 R-ak (murriztu, berrerabili, birziklatu), Gipuzkoako zabortegeien egoera, hondakinen zikloa.

METODOLOGIA:

- Panel eta maketez baliatuz eta galdera-erantzun sistema erabiliz gidoia landuko dugu. Gidoia landu ondoren, taldeka eztabaidatuko dugu zer egin dezakegun zaborra gutxitzeko, nola (ontzi handiak/txikiak, erabili eta botatzekoak...) eta non (azokan, denda txikietan, supermerkatuan...) erostea komeni den zabor kopurua gutxitzeko, ea erosten dugun guztia beharrezkoa den, beren gurasoek zeukatena eta beraiek daukatena konparatu...

GIDOIA:

- **Hondakinen eboluzioaren maketa.**

Gaiarekin hasteko, hondakinen eboluzioaren maketa landuko dugu. Hondakinak betidanik sortu izan ditugu, baina gaur egun, bai kopuru aldetik eta bai hondakin mota aldetik, oso desberdinak dira. Pertsona bakoitzak egunean sortzen dugun hondakin kopuruaz arituko gara.



JARDUERA: HONDAKINAK

- **Kontsumoa lurralde azpigaratueta/garatueta.**

Lurralde garatueta %20a bizi gara eta Lurreko baliabideen %80a kontsumitzen dugu. Azpigaratueta, berriz, %80a bizi da, eta Lurreko baliabideen %20a kontsumitzen dute. Bizitzeko behar adina ere ez daukate.

- **Eguneroko zabor kopurua sortzearen arrazoiak.**

Gero eta gehiago kontsumitzeaz gain, erosketak egiteko moduak zerikusi handia dauka egunero sortzen dugun zabor kopuruan: alferrikako bilduki ugari, erabilera bakarreko produktuak (klinesak, brick ontziak, polispan ontziak...), ontziak txikiak... Gainera, behar adina ez dugu berrerabiltzen ez eta sailkatzen ere birziklatzeko.

- **Zaborraren ibilbidea/tratamendua.**

Etxean zaborra sailkatu ondoren, dagokion ontzira botatzen dugu (ontzi bakoitzera ze bota behar den errepasatuko dugu, beti daudelako zalantzak hondakin batzuekin). Guztietatik, grisetik ezik (hau errefuxarena) birziklatzera doa. Grisekoa zabortegira eramaten da eta han zaborrarekin zer egiten den azalduko dugu.

- **Garbigunea eta konpostatze planta.**

Sortzen ditugun hondakinak sailkatu ondoren, guztiak ez dira kaleko zabor-ontzietan sartzeko modukoak eta hauek garbigunera eraman beharko genituzke; honela, etxetresna elektrikoak, mugikorak, kotxeen bateriak, pneumatikoak, jostailuak... Bestalde, hondakin organikoak ontzi marroian sartu beharko genituzke. Hauek konpostatze plantara eramaten dira ongarri naturala egiteko.

- **3 R-ak.**

Azaldu MURRIZTU – BERRERABILI - BIRZIKLATU kontzeptuak, beraiek ze ohitura dauzkaten, ze berrerabiltzen duten, sailkatzeko ohiturarik ba al duten...

- **Zaborraren tratamendua zabortegietan.**

Zabortegietan zaborrarekin jarraitzen duten prozesua ezagutzeko aukera izango dute: zaborrak nola tratatzen diren, hauek sortzen duten gasarekin zer egiten den eta zer egin daitekeen, lixibak non eta nola tratatzen diren, zabortegia itxi ondoren zer gertatuko den....

- **Zabortegien egoera Gipuzkoan.**

1987an Gipuzkoan bost zabortegi egotetik (Tolosakoa, Urteta (Zarautz), Sasieta (Beasain), San Marcos (Donostia), Lapatz (Azpeitia)) zabortegirik gabe egotera pasatu gara. Zabortegien eboluzioa azalduko zaie.

- **Garapen iraunkorraren panelean hondakinen ziklo osoa ikusi.**

Garapen iraunkorraren panelean materialen (beira, papera eta plastikoa) zikloa landuko dugu aukera zuzenak eta okerrak ezagutzuz eta jarrera iraunkorrerantz bideratuz.

- **Birziklatu ondoren zer? Bitrina ikusi.**

Birziklatzera botatzen ditugun hondakinak zertan bihurtu daitezkeen ikusi ahal izango dugu bitrina eta paneleko eredu bidez. Askotan, ondorioa ezusteko atsegina izaten da.